



## ALKATETZAREN EBAZPENA

### GAIA: GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna, dela eta, Nafarroako hainbat Toki Entitatek, beren Berdintasun Zerbitzuen bitartez, adierazpen bateratu bat egin dute. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (NUKF) lankidetzarekin egindako adierazpen instituzional hau, **“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK”**, parte hartu nahi duten Nafarroako gainerako udalerrien esku jarri dute:

Espedienteko adierazpen instituzionalaren dokumentua ikusi ondoren, Alkate andreak, honako ebazpen hau eman du:

**LEHENDABIZI.- “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK”** izeneko espedientean dagoen dokumentuan lantzen dena babestea.

**BIGARREN.-** NUKFri Mañeruko Udalak **“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK”** adierazpen instituzionalarekin bat egiten duela jakinaraztea, eta adierazpen hori udalaren webgunean argitaratzea.

Mañerun, 2024ko azaroaren 7an